



### 3. ATALA: INFLUENTZERRAK

KARTA DIDAKTIKOA

# LABURPENA

	Jarduerak	Titulua	Helburua	Baliabideak
Hasiara fasea	1. Jarduera	Zer dakigu influentzerren inguruan?	Influentzerren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.	I. Eranskina: Aurkezpen posterra
	2. Jarduera	Bai, esan? Influentzerrak	Influentzerren lanbidearen inguruko hausnarketa hastea bideopodkasta oinarri hartuta.	Ordenagailua Proiektorea Bideopodkasta
Garapen fasea	3. Jarduera	Influentzer mundua ezagutzen.	Influentzer batek bere lana aurrera eramateko erabiltzen dituen lan tresna, estrategia eta egin beharreko zereginak ezagutzea.	II. Eranskina: Influentzerren zerrenda. III. Eranskina: Influentzerren lanbideko estrategien zerrenda irakasleendako. IV. Eranskina: ikasleek estrategien zerrenda egiteko txantiloila.
	4. Jarduera	Zein arrisku ditu influentzer baten lanak?	Influentzerren lan tresnek dituzten arriskueta sakondu eta hauen inguruan hausnartzea.	

Ekoizpen fasea	5. Jarduera	Gu influentzer!	Instagram kontua sortu eta hau baliatuz gure azoka eta bertan salduko ditugun produktuak ezagutzera ematea.	V. Eranskina: Instagrameko kontua sortzeko tutoriala.  Instagram aplikazioa.  Argazki kamera.
	6. Jarduera	Azoka eskolan	Azoka muntatu eta bisitariak jasotzeko prest uztea izango da.	

\* Karta didaktiko hau proposamen bat da. Irakasle bakoitzak bere ikasgelara zein ikasleen interesetara moldatzeko aukera du

# MUINA

## Helburuak

- Orokorrak
  - Sekuentzia honen helburua da irakasleak bideratutako elkarrizketa batetik ikasleen interesgune den gai bat ardatz hartuta ikasleen arteko elkarrekintza eta ekiten jardutea ahalbidetuz, beraien gaitasunak ahalik eta gehien garatzea. Horretarako sare sozialak aitzakitza hartuta, influentzer mundua ezagutu, hauen lanbidean murgildu eta ikasle guztien artean bigarren eskuko azoka bat sortuko dugu.
- Espezifikoak
  - Influentzerren lana ezagutzea.
  - Sare sozialek eduki ditzaketen arriskuak ezagutzea.
  - Sare sozialek eduki ditzaketen arriskuen gaineko kontzientzia edukitzea.
  - Egoera desberdinen aurrean sortzen diren emozioak lantzea.
  - Teknologia modu arduratsu batean erabiltzea.
  - Ardurak betetzea.
  - Helburuak lortzeko taldean lan egitea.

## Azken xedea edo ekoizpena

- Azken xedea izango da gela guztiaren artean ikasgelako instagram kontua baliatuz, bigarren eskuko produktuen azoka sortzea.

## Ikasle taldea

- Bigarren ziklorako pentsatuta dagoen karta didaktikoa da, printzipioz. Hala ere, karta didaktikoaren amaieran gainontzeko zikloetara egokitzeke proposamenak biltzen dira.

# KARTA DIDAKTIKOA

## Lehenengo fasea

### 1. jarduera → Zer dakigu influentzerren inguruan?

- Helburua: Influentzerren inguruko aurrezagutzak aktibatzea irakasleak hasiko duen elkarrizketa bat oinarri hartuta.
- Gelara sartuko da poster batekin. Asanbladan eserita, posterrean ikus genezaken objektuen inguruko elkarrizketa bat hasiko dugu. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Zer ikusten duzue posterrean? Zertarako erabiltzen dira objektu horiek? Nork erabili dezake honako objektu hauek bere lanbidean? Ezagutzen al duzu lanbide hori egiten duen norbait?...

### Irakaslearentzat oharra:

- Jarduera hau aurrezagutzak pizteko besterik ez da. Informazio asko ez dute izango, eta gure ardura izango da elkarrizketa bideratzea pistak emanaz. Hala ere, interesgarria da ezjakintasun hori ere balioan jartzea eta horren inguruan hausnartzea. Askotan ez baitugu pentsatu ere egiten kontsumitzen dugun horren atzetik zer dagoen, ikusten dugun horren zergatia... Ezjakintasun hori gehiago jakiteko irrika pizteko erabiliko dugu.
- Posterra eranskinetan aurkituko duzue.

## 2. jarduera → “Bai, esan? Influentzerrak”

- Helburua: Influentzerren lanbidearen inguruko hausnarketa hasia bideo-podkasta oinarri hartuta.
- Bai, esan? Bideo-podkasta ikusiko dugu. Lehenengo jardueran landutakoarekin eta bideo-podkastean jasotako informazioarekin lanbidean gehiago murgilduko gara. Jasotako informazioan ikasleei interesa piztu dien gaiak oinarri hartuta ikasleak hausnarketara bideratuko ditugu eta lanbidearen inguruko ondorioak ateratzera bultzatuko ditugu.

### Irakaslearentzako oharra:

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Atera behar diren ondorioetako batzuk hauek dira:
  - **Zein da influentzerra?** Influentzer izatearen atzean beste norbaitengan eragitea, zerbait erakustea... dago. Guztiok eragiten baitugu norbaitengan gure egunerokotasunean, beraz, influentzer guztiok garela esan daiteke. Gaur egun sare sozialek gure ingurutik haratago eragiteko aukera ematen digute baina bizi guztian zehar egon dira influentzerrak, hein batean edo bestean.
  - **Guztiok gara perfektuak eta inperfektuak.** Lanbide honetan aritzen den pertsona bat komunikatzaile ona izan behar da, sormendun pertsona izan behar da eta pasioa izan behar du. Hala ere, naturaltasuna ez da alde batera utzi behar; naturaltasunez jokatu behar du, itxurakeriarik gabe. Zu zeu izatea garrantzitsua da.
    - Sare sozialetan perfektua den bizitza bat erakusteko joera dago, hala ere, erreferente hauen bizitza ez da perfektua, guztiok ditugu arazoak. Errealitatea zein den desberdintzen jakitea garrantzitsua da. Ondo egoteko gaizki ere egon behar gara nahiz eta hori sarritan erakusten ez den arren.

# KARTA DIDAKTIKOA

## Garapen fasea

- **3. jarduera**→ **Influentzer mundua ezagutzen.**
- Helburua: Influentzerren lan, lan tresna eta zereginetan sakontzea.
- Jarduera honetan ikasleak taldeetan batuko dira eta influentzer batek produktu bat, ekintza bat... ezagutzera emateko zein urrats jarraitzen dituzten ezagutuko ditugu, baita lan hori aurrera eramateko erabiltzen dituzten estrategiak ere.
- Hau egiteko, hainbat influentzerren berri emango dizkiegu eta ikasleek, taldeka hauen sare sozialak aztertuko dituzte.

## Irakaslearentzako oharra

- Eranskinetan aurkituko duzu ariketa hau egiteko influentzer zerrenda eta ikasleek beteteko txantiloila.

#### 4. jarduera→ Zein arrisku ditu influentzer baten lanak?

- Helburua: Influentzerrek erabiltzen dituzten lan tresnek dituzten arriskuak identifikatu eta ezagutzea.
- Jarduera hau egiteko asanbladan eseriko gara. Irakaslea elkarrizketaren gidari izanik, guztion artean teknologiaren erabilpenak izan dezaken arriskuak identifikatuko dugu, baita hauek pertsonengan izan dezaketen ondorioen zerrenda ere. Arrisku hauen gaineko hausnarketa bat egitea proposatzen da. Hona hemen elkarrizketa hasteko galdera gidari batzuk: Sare sozialetan ikusten dugun guztia erreal al da? Sare sozialak segurua al dira? Zer gerta daiteke hauen erabilpen desegoki batekin?

#### Irakaslearentzako oharra

- Elkarrizketa horretan irakasleak hainbat input eman beharko ditu helburu komun batzuetara iristeko. Sare sozialek eduki ditzaketen arriskuak batzuk hauek dira:
  - Cyberbulling-a. Beste pertsonengan eraso psikologikoa egitea sare sozialen bitartez. Jazarpena, irainak, iruzkin txarrak, engainuak...
  - Pribatutasun eza. Sare sozialen erabiltzaileek inforbazioa bereganatzeko gaitasuna izan dezakete. Oso erreza izan daiteke gure jarraitzaileak pertsona ezezagunak izatea eta hauek gurekin harremanetan jartzea.
  - Grooming. Pertsona heldu batek adin gutxiko pertsona bati egindako aubsua, pertsona gaztea balitz moduan jokatzuz.
  - Menpekotasuna.
  - Sexting. Pertsona ezezagun bati eduki sexuala bidaltzea.
  - Hausnarketaren bitartez sare sozialak modu egoki eta osasuntsu batean erabiltzearen garrantzia azpimarratuko dugu, honen kontzientzia helaraziz.



# KARTA DIDAKTIKOA

## Ekoizpen fasea

### 5. jarduera → Gu influencer!

- Helburua: Instagram kontua sortu eta hau baliatuz gure azoka eta bertan salduko ditugun produktuak ezagutzera ematea.
- Lehenik eta behin, aurreko jardueretan landutakoari forma emango diogu. Horretarako, influencerren lan tresna den Instagram aplikazioan kontu bat sortuko dugu. Hau egiteko, ikasleek kontuaren izena, deskribapena, hasierako argazkiak, etab. pentsatu beharko dituzte, baita sortutako kontu berri honen berri nola eman ere.
- Bestalde, ikasle bakoitzak bideo bat grabatu eta zintzilikatuko du gure Instagram kontuan, zein produktu eramango duen eta produktu horren istorio edo berezitasunen bat azaldu eta aditzera emateko. Bideoa grabatzeaz gain, bigarren eskuko produktu hori ondo ikusteko baliagarriak izango diren argazkiak atera eta zintzilikatuko ditu.
- Bestalde, azokaren berri emateko publikazioak sortu eta zintzilikatu beharko dira.

### 6 .jarduera → Azoka eskolan.

- Helburua: Azoka muntatu eta bisitariak jasotzeko prest uztea izango da.
- Jarduera honetan denok batera emango diote azokari forma. Argazkiak zintzilikatuko dituzte, gela jantziko dute... finean, gela azoka bihurtuko dute. Bitartean aurkezpenaren eguna ere finkatuko dute eta horren deialdia zabalduko dute. Kasu honetan beste komunitateko kide batzuei gonbidapena luzatzea proposatzen da gonbidatu nahi diren taldeen geletara bisita eginez, azokaren berri eta gure instagram kontuaren berri emango diren kartelak itsatsiz, etab.
- Aurkezpenaren egunean ikasle batzuk harrera egingo diete etortzen diren guztiei. Beste ikasle batzuek ekarritako bigarren eskuko produktuak saltzen egongo dira. Ikasle talde txiki bat gure instagram kontua hornitzen joango da bertan azokan zehar ateratako argazki zein bideoak zintzilikatuz.


## **Karta didaktikoa beste maila batzuetara egokitzeko proposamena**

- Karta didaktiko hau bigarren ziklorako prestatuta dagoen arren, beste zikloetara egokitzeko aukera dago. Ziklo baxuagoetarako irakasleak emango duen laguntza eta ikasleei emango dizkieten baliabideak handiagoak izango dira. Adibidez, ziklo baxuagoetarako erabiliko diren trukuak simpleagoak izango dira. Ziklo altuagoetan berriz, trukuak konplikatuagoak izango dira eta emanaldietan bakoitzak izango duen presentzia handiagoa izango da.

# KARTA DIDAKTIKOA

## Eranskinak

### I. Aurkezpen posterra



# KARTA DIDAKTIKOA

## Eranskinak

### II. Influentzerren zerrenda

INFLUENTZERREN IZENAK	INFLUENTZERREN IZENAK
Ana Goitia	@anatxuchic
Andrea Gonzalez	@andrgzv
Aiora Mujika	@probatxoa
Arkakuso	@arkkuso
Maddi Etxberria	@begaonegin

### III. Estrategien zerrenda

- Influentzerrek beraien burua ezagutzera emateko edo produktu zein ekintza bat ezagutzera emateko jarraitu dezaketen urratsen zerrenda:
  - Jende ezagunarekin elkarlanean aritu.
  - Beste influentzer batzuek egiten ez duten edukia sortu eta partekatu, eduki originala sortu.
  - Kalitatezko edukia sortu.
  - Argazki zein bideoak igo.
  - Jarraitzaileekin gertutasuna mantentze alderako edukia sortu; hala nola, zozketak.

# KARTA DIDAKTIKOA

Eranskinak

IV. Ikasleek estrategien zerrenda egiteko txantiloila

**ESTRATEGIEN  
ZERRENDA**

<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____
<input type="checkbox"/>	_____



# KARTA DIDAKTIKOA

## Eranskinak

### V. Instagrameko kontua sortzeko tutoriala

- Ondorengo aurkezpenean Instagram kontua nola sortzen den ikusiko duzu argazkien bitartez.
- Urratsak:
  - Nabigatzailean Instagram bilatu.
  - Izena eman.
  - Datuak bete.

© EITB MEDIA

---

